

- **Kanalak**

Gure enpresan bezeroarekin harremanetan jartzeko erabiliko ditugun kanalak webgunea eta telefonoa izango dira.

Gure enpresa kalean egongo den denda bat izango da eta internetetik online bidez ere eskuragarri egongo da. Webgunean toldoari buruzko informazioa edukiko dugu eta telefono zenbaki bat egongo da gurekin harremanetan jartzeko. Bezeroek kexatu nahiko balute, zerbitzu txarra eduki duelako eta abar, webgunean leku berezi bat izango dute hori azaltzeko. Gu lehenbailehen saiatuko gara arazoa konpontzen.

Toldoen banaketa furgoneta bidez egingo dugu. Gure enpresako langileak joango dira toldoa muntatzera eta egin beharreko instalazioak egitera.



